

*DURANGALDEKO UDALTALDE 21KO
TOKIKO AGENDA 21 FOROAREN
DINAMIZAZIOA*



*Atxondoko Udala
Tokiko Agenda 21 Foroaren akta
2007/11/14*

Atxondon Tokiko Agenda 21en Herri- partaidetzaren Foroak ospatutako batzarraren Akta

Tokia:

2007ko Azaroaren 29an, Atxondoko udaletxea

Ordua:

19:00tik 21:00tara

Bertaratutakoak:

Ismene Mandaluniz (Udaltalde 21).

Aitor Urquijo (Gestiker).

-/+ 10 herritar.

Alkatea (Atxondoko Udala)

Sarrera:

Ongietorria ez ezik, euren bertaratzea ere eskertzen zaie partehartzaileei. Aurkezpenak egin ondoren, aholkularitzak 2.batzar honetarako Foroaren funtzionamenduz gain helburuak ere bai azaltzen ditu. Foroak 2 helburu ditu: udaletxeak herritarrei Tokiko Ekintza Planaren ekintzen antolaketa azaltzea eta udaletxearen proposamenak entzun ondoren, herritarrek eurentzako garrantzitsuenak diren ekintzak seinalatzea.

Bertaratuei foroan zehar erabiliko den materiala eman zaie.

Foroaren garapena:

Udaletxeak Atxondorako garrantzitsuak jotzen duten ekintzak eta horrenbestez, epe laburrera burutu beharrekoak uste dituenak gorritz markatuta daude. Beraz, lehenetasuna duten ekintzak dira. Abiadura Handiko Trenarekin lotuta dauden

ekintzak berdez markatuta daude, izan ere, udaletxeak ekintza berezizat hartzen ditu. Eta azkenik, beltzez idatzitako ekintzak ekintza orokorrak dira. Hala ere, alkateak TEPEko ekintzak guztiak garrantzitsuak direla azpimarratzen du nahiz eta batzuei lehentasuna eman.

LE 1. GARAPEN EKONOMIKO OREKATUAGO, DIBERTSIFIKATU ETA IRAUNKORRAGO BATEN ALDEKO APUSTUA EGITEA

P 1.1. Udalerriko aniztasun ekonomikoa sustatzeko programa

- 1.1.1. Industria Sektorearen aniztasuna bultzatu.
- 1.1.2. Tokiko merkataritza bultzatu, tokiko iraunkortasunean duen garrantzia azpimarratuz.
- 1.1.3. **Atxondoko Turismo plan bat aurrera eraman, udalerriko natur eta turismo puntu interesgarriak, zerbitzu eta azpiegiturak eta jendea jasotzeko duen gaitasuna biltzen dituen, eta udal ildo komun bat jarraitzen duena, Atxondoko puntu erakargarriak balioan jartzeko.**

P 1.2. Enplegua sustatzeko programa

- 1.2.1. **Udalak egiten dituen lan deialdiak ezagutarazi.**
- 1.2.2. Behargintzak Atxondorako eskaintzen dituen laguntza, kurtso, lan eskaintza,... inguruko informazioa bildu eta herritarrei jakinarazi.

LE 2. BIZTANLERIAREN ELKARTASUNA, BERDINTASUNA ETA ONGIZATEA SUSTATU

P 2.1. Udalerriko gizarte garapena iraunkortasun irizpideei jarraituz sustatzeko programa

- 2.1.1. Udalerrian ikasketengatik egiten diren bidaiantzako dirulaguntza ateratzeko aukera aztertu.
- 2.1.2. **Hirugarren adinekoek gaur egun duten egoera eta dituzten beharrak aztertzen dituen ikerketa bat egin.**
- 2.1.3. **Eskola Publikoen handitzea eta hobetzea.**

LE 3. HIRIGINTZA OREKATU BATEN ALDE EGIN, HIRI ESPAZIOAREN KALITATEA HOBETU

P 3.1. Hiri espazioaren kalitatea hobetzeko programa

- 3.1.1. **Ibilgailu astunak herri erdigunetik ez pasatzea egingo duen udal antolamendu bat aurrera eraman.**
- 3.1.2. **Herri lurzoruan espazio irekiak eta zona berdeak sortu eta eraberritu.**
- 3.1.3. Apatamonasterion herri sare trinko bat eratzea (indarrean dagoen planeamendua garatzea)
- 3.1.4. **Etorkizunean ekimenak garatzea posible egingo duen lurzoru erreserba bat izateko lurzoru erosketako publikoko ekintzak aurrera eraman.**
- 3.1.5. Etxebizitza berrien eraikuntzan iraunkortasun eta ingurumen hobekuntza irizpideak barneratu (bate zere sustapen publikoetan).
- 3.1.6. **Etxebizitzen alokairua sustatzeko aukera aztertu (Bizigune programa).**

LE 4. PAISAIAREN ETA NATURAREN BALIOAK HOBETU ETA BABESTU

P 4.1. Natur ingurunea babestu eta nekazal iharduera sustatzeko programa

- 4.1.1 Jabego publikoa duten baso eta mendietako kudeaketarekin jarraitu, bioaniztasuna eta berezko landaretza berreskuratuzera zuzendua.
- 4.1.2 Natur interes gehien eta produkzio balio gutxien dituzten lurzoruak hartzeko aukera aztertu, bere babesa ziurtatu eta bioaniztasuna eta paisaia mantentzeko.
- 4.1.3 Azpiegitura eta Garapen Urbanistiko berrien eraikuntzan ingurumen inpaktuaren babes eta zuzenketa neurriak eta Jarraipen Planak betetzen diren egiaztatzeko Udal Ingurumen Kontrol Bulego bat eratu.
- 4.1.4 Erralde Sozietate publikoak bultzaturiko eskualdeko hiltegiaren sorrera babestu.

LE 5. UDALERRIKO INGURUMEN KALITATEA HOBETU

P 5.1. Garraio publikoa hobetu, mugikortasun iraunkorra eta irisgarritasuna sustatzeko programa

- 5.1.1 Hirubide errotonda bultzatu.
- 5.1.2 Eraikuntza eta hirigintza garapen berrietan irisgarritasun arau legalak era zorrotzean betetzen jarraitzea.
- 5.1.3 Udalerrian irisgarritasun plan bat egitea.
- 5.1.4 Elorrio- Bilbao norabidean autobus geltoki bat eraiki, semaforoek erregulatutako oinezkoentzako bidegurutze batek lagundurik.
- 5.1.5 Mugikortasun iraunkorrerako azpiegiturak hobetu.
- 5.1.6 Eskualdeko Mugikortasun Iraunkorraren Hobekuntza Plan bat egitea.

P.5.2. Hondakinen kudeaketan iraunkortasun irizpideak barneratzeko programa

- 5.2.1 Arrazola auzoan beira biltzeko edukiontzi bat kokatzea ikertu eta kudeatu, ostalaritza establezimenduek dituzten beharrak asetzeko. **HONEZKERO EGIN DUGU**
- 5.2.2 Auzoetako bilketa selektiborako edukiontzien kopurua handitzea aztertu.
- 5.2.3 Herritar sentsibilizazio kanpainak aurrera eramanez Hiriko Hondakin Solidoen sorrera murrizteko eta pertsonengan birziklatzearen ohitura zabaltzeko.

P. 5. 3. Baliabide energetikoak arrazionalki erabiltzeko programa

- 5.3.1 Argiteria publikoa epeka aldatu, eraginkorragoak diren eta (denboran eta intentsitatean) erregulatu daitezkeen beste sistemengatik, argia alferrik ez galtzeko eta argi bidezko kutsadura ez sortzeko.
- 5.3.2 Udalerrian energia berriztagarriak kokatzeko aukera aztertu.
- 5.3.3 Eraikuntza berrien eraikuntzan energia aurrezte eta eraginkortasun irizpideak barneratzea (bate zere sustapen publikoetan).

P.5.4. Uraren kudeaketa integralerako programa

- 5.4.1 Hornikuntza uraren kudeaketa plan integral bat egin, arazo nagusienak aurkitu eta irtenbideak proposatzen dituen.
- 5.4.2 Udalerriko arazketa uren sarea osatu.
- 5.4.3 Sarearen ihesen arazo puntualak zuzendu.

P. 5.5. Lurzorua kutsaduratik babesteko programa

- 5.5.1 Potentzialki Poluiturik egon daitezkeen Lurzoruen Inbentarioan azaltzen diren udalerriko lurzoruetan ekiteko lehentasun ikerketa bat egin.

P. 5.6. Abiadura Handiko Trenaren proiektua kontrolatu eta jarraitzeko programa

- 5.6.1 Abiadura Handiko Trenaren eraikuntza proiektuaren definizio, kontrol eta jarraipen prozesuetan partaidetza aktibo aizan, eta lan hauetarako Abadiño eta Elorriorekin lan egiteko aukera aztertu.
- 5.6.2 Proiektu honen inguruan udalak duen informazio garrantzitsua ezagutzera eman.

P. 5.6. Udalerriko kalitate akustikoa hobetzeko programa

5.7.1. Udalerriko zarata mapa bat egitea.

LE 6. UDAL KUDEAKETAN IRAUNKORTASUNA BARNERATU ETA HERRITAR PARTAIDETZA ETA GIZARTEA DINAMIZATU

P 6.1. Udal kudeaketan iraunkortasun irizpideak barneratzeko programa

6.1.2. Kontratazio pleguetan, hornitzaileen aukeraketan eta kanpo zerbitzuen emakidan Iraunkortasun Irizpideak barneratzea.

6.1.3. Udal produktu eta ondasunen erosketa politikan iraunkortasun irizpideak barneratu (erosketa berde publikoa).

6.1.4. Udal iharduera edo instalazio batean EKOSCAN esperientzia bat aurrera eraman.

6.1.5. Udalsarea 21en partaidetza aktiboa izatea.

6.1.6. Alkateek osatutako Batzorde Politiko bat osatu eta dinamizatu.

6.1.7. Eskualdeko garapen iraunkorrerako erreferentziazko teknikari bat kontratatzea.

6.1.8. IHOBek udalen zerbitzura jartzen duen MUGI 21 tresna informatikoa erabili adierazleak kalkulatzeko, eta emaitzak ezagutarazi.

6.1.9. Udal web orrialdea eguneratu eta dinamizatu.

P 6.2. Herritar partaidetza eta gizarte dinamizatzeko programa

6.2.1. Udal komunikazio bideak hobetu eta handitu, herritarrenganako hurbiltasuna handitzeko.

6.2.2. Foroa bultzatu, Tokiko Ekintza Planaren jarraipena egiteko eta erabakiak hartzeko partaidetzarako tresna bezala.

6.2.3. Tokiko Agenda 21 ezagutarazteko eta ingurumen sentsibilizaziorako ekintzak egin.

6.2.4. Urtero "Aste Berdea" eta "Mugikortasun Astea" ospatzea.

Gai- zerrendaren 2.puntu honetan, herritar bakoitzak Atxondo iraunkorragoa bihurtzeko 2008an garatu nahi diren 3 ekintza zerrendatu dituzte. Ekintza hauek jadanik TEPen jasotakoak dira. Herritarrek 10 minutu dute lan hau burutzeko foro hasieran emandako materiala erabiliz.

Ondoren, 4-5 pertsonako taldeak osatu dira. Talde bakoitzean garrantzitsuenak iruditzen zaizkien 5 ekintza aukeratu dituzte.

1.taldea

- Hirigunetik ibilgailu astunak kendu
- Erabilpen publikorako zorua erosi (etxebizitzak, eskola, erresidentzia...)
- Hondakinak murrizteko eta birziklapena handitzeko sentsibilizazio kanpaina
- Turismoa bultzatu eta bisitariei AHTren kontrako kontzientzia sortarazi
- Autobus geltokia Elorrio- Bilbao errepidean

2.taldea

- Hirubiden errotonda egin (Elorrio-Bilbao errepideko autobus geltokiarekin lotuta)
- Hirigunetik ibilgailu astunak kendu
- Birziklapena bultzatzeko sentsibilizazio kanpaina
- Eskola handitu eta hobetu
- Babes Ofizialeko Etxebizitzak (BOE)

3.taldea

- Kamioen erregulazioa
- Errotonda egin
- Etxebizitza sozialak
- Autobus geltokia Elorrio- Bilbao errepidean
- 3. adinekoen beharrianak asetu

Talde bakoitzeko proposamenak kartoi mehe baten jarri dira gainontzeko pertsonak irakurri ahal izateko eta hauei buruzko hausnarketa bat egin ahal izateko. Honetarako 10 minutu dute. Jarraian, kartoi mehe bakoitzeko 5 ekintza izanik (guztira 15), 3 ekintza aukeratu dituzte. Kontaketa bat egin da eta emaitza hauek lortu dira:

Ekintza	Boto kopurua
Kamioen erregulazioa	12 boto
BOE + Zoru publikoa (elkarloturik daude)	7 boto
Errotonda	6 boto
3.adinekoen beharrianak asetu	4 boto
Turismoa AHTrekin lotuta	4 boto
Hondakina murriztu eta birziklapena bultzatu	1 boto
Eskola zabaldu eta hobetu	1 boto
Autobus geltokia Bilbao- Elorrio errepidean	1 boto

Ondoren, zaborrak lurperatzeari buruzko galdera sortzen da. Udaletxeak zaborrak lurperatu beharrean herritarrek zaborra murriztu behar dutela defendatzen du. Zaborrak lurperatzea ez da arazoaren irtenbide bat. Gainera, zaborrak lurperatzeari buruzko laguntzak eskasak direla onartzen du. Bertaratutako batek bidegorrian farola falta dagoela ohartarazten du. Hala ere, bidegorri osoan farolak jarriz gero gastu handia izango luke udaletxeak. Bideak hobetu behar direla proposatzen da. Hala ere, ez dago erantzun zehatzik auzi honen inguruan, izan ere, gai oso konplexua dela defendatzen dute.

Azkenik, udaletxeak gai ezberdinak landuko dituzten 3 foro egitea proposatzen du: hirigintzari buruzko foroa, ingurugiroari buruzko foroa eta foro kulturala (herritartasuna, sentsibilizazioa...)

Agurra:

Komentario hauek egin ondoren, Tokiko Agenda 21en herritarren Iraunkortasunerako 2.foroa amaitutzat ematen da. Herritarrei euren kolaborazioa eta lana eskertu zaie.

Garai, 2007ko Azaroaren 29an
Ismene Mandaluniz
Durangaldeko Udaltalde 21eko Teknikaria